

**TRES POEMAS**  
**Elena Liliana Popescu**

**Erran**

Ez zenuen uste irabaziko zenuenik,  
arrei uko egin ondoren,  
zeure askatasuna lortzearren  
hire buruaren kontra  
borrokatu zenuenean

Ezingo zara inoiz begiratu  
erakusten zaituzten ispilutan,  
ahul edo arroa  
izukaitz edo kondarra,  
zeure nahiek nahi duten eran...

Erran zizuten  
ez zenuen sinetsi baina...

Ispilu gabeko herrian  
“zein izango ote da hire aurpegia?”  
Behin eta berriro galdegingo  
diok heure buruari, eta jakingo duk  
erantzunari, bere kabuz etortzen,  
bide ematen badiok

Zer duk galtzear,  
bilaketa, dagoen  
errealitate bakarra bada?

Zein da bidea?  
galdetzen da,  
jakin gabe ibiltzear daukadan  
bide bakarretik, dabilena

Nora iritsi?  
Hura, han badago, naiz eta,  
oraino, ezin dezake jakin  
irabazi duela.

Ba al dago lehi beldurgarriagorik,  
Hura, non zu zeu zaren,  
partaide egoskor bakarra?

Nola borrokatu daiteke baina  
etsaiak, kutun antzera,  
zure aurpegia  
besterik daramanean?

“Itxaropen guztia galdu ezazu” Erran hinduten  
benetan itxaron zenezakeen  
Erran, baina? Jadanik guztia daukanari,  
zertarako balio dio itxaropenak?  
Edo, itzuli bidea jakitea,  
iritsi denari?

### **Guztia galtzen denean**

Ordularia ez da geratu,  
ordean ez zaio ikusten,  
geldirik dagoen, denboraren esferan  
orduak jotzen, begiespenean.

Ikuspegia ez da galdu  
baina ez dira gauzak ikuzten,  
espazioaren eremu aratzean mugatuak,  
izenik ez daukanak.

Bizitza ez da bukatu, heriotza, aldiz,  
ez da zeruertzean ikusten,  
egunen batean, lekuren batean,  
jaiki zen gizakiaren zain, ahantziaren herrian.

Lehen bezala guztia bere lekuan dago  
naiz eta, guztiak, jada, ez du, ezer, erran nahi  
denbora barik, espazioan galtzen denean,  
denboran, espazio barik.

### **Une hura**

Hitz batzuk, erran hintzen,  
Hitz batzuk bakarrik, eta istorio  
oso bat sortu zenuen, zeinen oraina,  
orduko, iragana da,  
biharra, atzean utzi duenaren,  
iragana besterik izango den bezala,  
betirako galdua.

Hitz bakar bat, erraten haiz  
Hitz bakar bat, eta zure bide egitean,  
Hurbiltzen zara,  
ezezagunaren atari susmagaitzera,  
zer zarenei, edo zer ez zarenei  
beldurrik gabe, Izan dezakezun  
eta zaren unera.

Eukene Lizeaga itzulia  
Basco version: Eukene Lizeaga  
<http://amargia.blogspot.com/>